



## Euskal Herriko eta kanpoko hainbat idazle handik gatazkak izan(go) dituzte hizpide 'Chejov vs Shakespeare' proiektuan

**Bertako eta atzerriko izen handiko idazle banaz osatutako zortzi bikotek gutunak idatzi dizkiote elkarri azken hilabeteotan eta orain posta-truke hori guztia argitara ekarriko du Erein argitaletxeak zortzi liburutan.**

**Idazle-bikoteak azaroaren 7tik abenduaren 16ra bitartean egingo den jendaurreko topaketa-sorta batean bilduko dira lehen aldiz.**


Donostia 2016ren *Chejov vs Shakespeare* proiektuaren bidez, Euskal Herriko eta nazioarteko hamasei idazle esanguratsu harremanetan jarri dira, gatazken inguruko (bere zentzu zabalenean) gutun bidezko elkarrizketa sakon bat izan zezaten. Zortzi idazle-bikoteek elkarri bidali dizkioten gutunak orain ezagutzera emango dira, liburu banatan argitaratuta. Horrez gain, liburuak aurkezteko beste hainbeste jendaurreko topaketa egingo dira.

Amos Oz idazle israeldarraren honako esaldia dago proiektuaren abiapuntuan: «Ekialde Hurbilekoaren antzeko gatazketan bi literatur ikuspegik egiten dute bat: alde batetik, Shakespeareren justizia poetikoak, eta bestetik, Chejoven giza justizia tristeak. Lehenengoan, inork ez du amore ematen, printzipioak eta ohorea edozeren gainetik daude, baita bizitzaren gainetik ere, baina agertokia odolez betetzen da; bigarrenean, berriz, pertsonaiek beraien desadostasunez eztabaidatzen dute, auziok konpontzen dituzte eta, amaieran, etxera itzultzen dira, nahiko etsita. Baina bizirik itzultzen dira».

Tesi hori oinarritzat hartuta, Euskal Herriko eta kanpoko idazle banak osatutako zortzi bikotek aktualitateari buruzko eta haien kontu pertsonalen gaineko posta-truke luzea izan dute.

### **Hamasei idazle aurrez aurre**

Rotara, hamasei idazlek parte hartu dute proiektuan eta horiek hautatzeko arrazoiak hainbat izan dira; besteak beste, lehenik ere haien inguruan gertatutako gatazkei buruz idatzi izana.



Arantxa Urretabizkaia (Donostia, 1947), Eider Rodriguez (Errenteria, 1977), Harkaitz Cano (Lasarte-Oria, 1975), Luisa Etxenike (Donostia, 1957), Fernando Aramburu (Donostia, 1959), Bernardo Atxaga (Asteasu, 1951), Laura Mintegi (Lizarrá, 1955) eta Angel Erro (Burlata, 1978) izan dira Euskal Herriko literaturaren ordezkariak.

Gainerako idazleak, bakar bat kenduta, Hector Abad (Kolonbia, 1958), Europakoak dira: Birgit Vanderbeke (Alemania, 1956), Patrik Ourednik (Txekiar Errepublikak, 1957), Menna Elfyn (Gales, 1951), Bashkim Shehu (Albania, 1955), Belén Gopegui (Espainia, 1963), Dubravka Ugrešić (Kroazia, 1949) eta Mircea Cartarescu (Errumania, 1956).

Gutun-trukea orain urtebete pasatxo hasi zuten idazleek eta hainbat gairi buruz hausnartu dute: literaturaz, gatazkaz, idazleak zenbait gai lantzerakoan duen egitekoaz... Parte-hartzaileek erabateko askatasuna izan dute bai jorratuko zituzten gaiak aukeratzeko bai gutun-trukearen maiztasuna finkatzeko.

## **Liburuak eta topaketak**

Parte-hartzaileen arteko trukearen emaitza bi ekintza izango dira. Batetik, Erein argitaletxeak zortzi liburu argitaratuko ditu azaroan zehar. Liburu bakoitzak bikote baten posta-trukea jasoko du eta horien azalak izen handiko zortzi ilustratzailek diseinatuko dituzte: Maite Gurrutxaga, Sara Morante, Amaia Arrazola, Elena Odriozola, Iban Barrenetxea, Javier de Isusi, Iker Ayestaran eta Iván Matak. Gainera, liburu guztiek Amos Ozen hitzaurre bat izango dute.

Datorren astelehenean idazleen arteko topaketak hasiko dira. Lehenengo topaketako protagonistak Fernando Aramburu eta Héctor Abad izango dira, datorren azaroaren 7an; azkenak, berriz, Luisa Etxenike eta Mircea Cartarescu ospetsua bilduko ditu, abenduaren 16an. Saio bakoitzean, ordura arte posta bidezko harremana bakarrik izan duten bikoteetako kideak aurrez aurre ariko dira solasean.

Topaketen helburua honakoa da: idazleek lehen pertsonan azaltzea zer-nolako harremana izan duten, zer prozesu egin duten eta zein gairi buruz hausnartu duten.

Horretarako, moderatzaile batek gidatuta, gutunetako pasarte batzuk hautatuko dituzte, horien gainean libreki solas egiteko. Entzuleek ere solasean parte hartzeko aukera izango dute.

Topaketa horietan literatura ez diren beste diziplina artistiko batzuei ere tarte eskainiko zaie. Solasaldi bakoitzaren hasieran, Angel Aldarondo zinemagile donostiarraren ikus-entzunezko pieza bat emango da; gainera, hainbat formatu jorratzen dituen Mabi Revuelta artista plastikoak –sormen-jarduerari zuzendutako 2016ko Gure Artea Sariaren irabazlea– publikoarekin elkarrekintzan aritzeko asmoa duen sormen-lan bat proposatuko du.

## **Egitaraua**

Topaketa guztiak Aquariumeko auditoriumean egingo dira, 19:00etan, data hauetan:

Azaroak 7

Fernando Aramburu / Héctor Abad



(Moderatzailea: Roberto Herrero)

Azaroak 8

Laura Mintegi / Birgit Vanderbeke

(Moderatzailea: Mikel Ayerbe)

Azaroak 14

Angel Erro / Patrik Ourednik

(Moderatzailea: Iñigo Artiz)

Azaroak 15

Arantxa Urretabizkaia / Menna Elfyn

(Moderatzailea: Eli Tolaretxipi)

Azaroak 17

Bernardo Atxaga / Bashkim Shehu

(Moderatzailea: Ruth Pérez de Anucita)

Azaroak 22

Eider Rodriguez / Belén Gopegui

(Moderatzailea: Leire Palacios)

Azaroak 28

Harkaitz Cano / Dubravka Ugrešić

(Moderatzailea: Goizalde Landabaso)



Abenduak 16

Luisa Etxenike / Mircea Cartarescu

(Moderatzailea: zehazteke)

\* Elkarrizketak lotzeko idatzi email honetara: maider\_urteaga@dss2016.eu

## Biografiak

### **Héctor Abad Faciolince (Medellín, 1958)**

Idazlea, itzultzailea eta kazetaria. Medellínen jaio zen 1958an. 1998. urtean, Kolonbiako Simón Bolívar Kazetaritza Sari Nazionala eskuratu zuen, iritzi-zutabeen atalean; 2006an ere jaso zuen sari hori. 1999an, Cambio aldizkariaren berriemaile aritu zen Estatu Batuetan, Boston hiritik. 2000n, Basura eleberriri esker, Casa de Américaren Narratiba Berritzaileko Saria irabazi zuen; 2004an, Angosta lana Txinan saritu zuten, Atzerriko Urteko Eleberririk Onena izendaturik; 2006an, DAADen beka bat lortu zuen, eta Berlinen bizi izan zen urtebetez.

2006ko azaroan, bere libururik arrakastatsuen argitaratu zuen, El olvido que seremos, non aitaren, Héctor Abad Gómez doktorearen, bizitza eta haren hilketaren ingurukoak aletu baitzituen. Lisboan eta Washingtonen saritua izan zen.

Gaur egun, zutabeak idazten ditu El Espectador egunkarirako, eta hango aholkulari editoriala ere bada. Orobat kolaborazioak idazten ditu Madrilgo El Paísen, Zuricheko NZZn eta Kolonbiako nahiz atzerriko beste hedabide batzuetan. Haren eleberriak hainbat hizkuntzatan argitaratu dira, hala nola ingelesez, portugesez, italieraz, txineraz, frantsesez eta alemanez.

### **Fernando Aramburu**

Donostian jaio zen 1959an. Arte eta Desarteko CLOC Taldea sortu zuen, beste kide batzuekin batera, ekintza kontrakulturalak eta umore surrealista uztartuz. Hispaniar Filologian lizentziatu zen Zaragozako Unibertsitatean. 1985az geroztik Alemaniako Errepublika Federalean bizi izan da. Luzaro pedagogia-lanetan jardun ondoren, gaur egun idaztea du bizibide bakar.

Poesiaren bidez hasi zuen literatura-ibilbidea. Euskal Herriko Unibertsitateak bere poesia ia osoa argitaratu zuen 1993an, Lanbroa eta kontzientzia izenburupean, edizio alde elebidunean. Gerora, 2010ean, bere poemen beste lagin bat aurkeztu zuen, Yo quisiera llover izenburupean bildurik.



Haren lehen eleberria, Fuegos con limón, 1996an agertu zen. Orduetik beste liburu batzuk etorri dira: Los ojos vacíos (Euskadi saria, 2001), El trompetista del Utopía, Vida de un piojo llamado Matías, Bami sin sombra, Viaje con Clara por Alemania, Años lentos (Eleberrietarako Tusquets saria, 2011) eta Ávidas pretensiones (Biblioteca Breve saria, 2014). Halaber, idatzi ditu prosa laburren liburu bat, El artista y su cadáver; literaturari buruzko gogoeta-bilduma bat, Las letras entornadas; eta zenbait ipuin-liburu: No ser no duele, Los peces de la amargura (Espainiako Errege Akademiaren 2008ko saria, NH Vargas Llosa eta Dulce Chacón sariak) eta El vigilante del fiordo. Haur-literaturan ere jardun du, eta autore alemanen liburuak itzuli ditu. Egunkarietarako idazten du maiz. Haren lanak hainbat hizkuntzatarara itzuli dira. Azken liburuan, Las letras entornadas (2015) izenburupean, kulturari eta literaturari buruzko gogoetazko saiakerak bildu ditu.

### **Bernardo Atxaga**

Asteasun jaioa 1951n. Liburuok argitaratu ditu, beste hainbaten artean: Bi anai (1985), Obabakoak (1988, Euskadi Saria, Espainiako Premio Nacional de Narrativa, IMPAC European Literary Award sarian finalista), Gizona bere bakardadean (1993), Zeru horiek (1995), Soinujolearen semea (2003, Grinzane Cavour saria, Mondello saria, Times Literary Supplement Translation Prize saria), Lekuak (2005), Zazpi etxe Frantzian (2009, Estatu Batuetan 2012an argitaratutako hogeitazko fikzio liburu onenen arteko bat Publishers Weekly aldizkariaren arabera, eta finalista urte bereko Independent Foreign Fiction Prize sarian), Paradisua eta katuak (2012), Ne- vadako egunak (2013) eta Txoriak kolpeka (2014). Bere obra, 33 hizkuntzatan irakur daitekeena, zinemara eraman dute Montxo Armendarizek (Obaba, 2005), Aizpea Goenagak (Zeru horiek, 2006) eta Imanol Rayok (Bi anai, 2011). Euskaltzain oso da, eta Erlea aldizkariaren zuzendari.

### **Bashkim Shehu**

Tiranan jaioa 1955ean. 1997an Bartzelonara heldu zen, babeslekua eman baitzioten han, Idazleen Nazioarteko Parlamentuaren “Babes Hiriak” programaren baitan. Elkarte horren berorren ordezkaria izan zen 1998-2000 urteetan.

Bere bizitzan zehar, Bashkim Shehuk zuzenean ezagutu ditu jaio eta hazi zen sistema totalitarioaren muturrak: gobernuko kargu goreneko baten semea da, baina 1981ean diktadoreak aita purgatu zuen, eta Bashkim Shehu bera Albaniako Gulagean espetxeratu zuen, bi aldiz auziperatuta iritzi-delitutzat hartzen zenarengatik. Oso gazterik hasi zen literaturgintzan, eta, Olinpoa nahiz Infernua ezagutzeko aukera izan duelarik, bi esparru horietako gaiak agertzen dira Shehuren idazkeran, elkarren gainka jarrita eta erlaxatuta, autobiografiatik mundu onirikoraino doazen erregistro literarioen sorta zabal batean.

Shehuren bi liburu argitaratu dira, itzulita, Espainian: Confesión junto a una tumba vacía eleberri autobiografikoa (Península, 1998) eta El último viaje de Ago Ymeri fizikozko eleberria (Meteora, 2001, gaztelaniaz eta katalanez). Laster agertzekoa da Angelus Novus eleberria (Siruela). Ingelesera, frantsera, italierara, errumanierara eta serbierara ere itzuli da Shehuren obra.

### **Luisa Etxenike**

Donostian jaiotako idazlea. Eleberri hauen egilea da: El detective de sonidos, El ángulo ciego (Euskadi Literatura Saria), Los peces negros, Vino, El mal más grave eta Efectos secundarios; Ejercicios de duelo eta La historia de amor de Margarita Maura kontakizun-bildumak ere argitaratu ditu, eta El arte de la pesca poema-bilduma.



Gustavo Schwartz fisikariarekin elkarlanean, La entrevista/The interview gai zientifikoko antzezlanaren egilea da (2016an argitaratu zen, gaztelania-ingeles bertsiio elebidunean).

Un mundo de escritoras literatura-jaialdiaren zuzendaria da.

Elkarlanean aritzen da hainbat irratitan eta baita prentsa idatzian ere; eta idazkera sortzaileko tailer bat zuzentzen du.

2007an, Arte eta Letren Ordenaren Zaldun saria eman zion frantses gobernuak.

### **Mircea Călbărescu**

Mircea Călbărescu Bukaresten jaio zen 1956ko ekainaren 1ean. Bere eguneroko jardunean, poeta, nobelista, literatura-kritikaria, irakaslea eta kazetaria da, eta Errumaniako Idazleen Elkarteko kidea, Errumaniako PENeko kidea eta European Cultural Parliament-ekoa. 25 liburu baino gehiago argitaratu ditu, ezin konta ahala artikulu plazaratu ditu, eta beraren lanak 22 hizkuntzara itzuli dituzte.

Gaur egun irakaskuntzan dihardu, Bukaresteko unibertsitateko Errumaniar Literatura sailean. Bere ibilbide luzean, osperik handieneko sariak eman dizkiote, bai Errumaniar, bai atzerrian. Europar Ulerpenaren Leipzig saria, 2015; Austriako Literatura Sari Nazionala, 2015; Zilarrezko Euskadi saria, 2014; La Tormenta en un vaso saria, Espainiar argitaraturiko atzerriar libururik hoberenari emana, 2013; Berlin Literatura saria, 2012; Spycher-Leuk saria, suitzan, 2012; Poesia Sari Handia, Novi saden (serbia), 2012; Vilenica Sari Handia, Eslovenian, 2011; Giuseppe Acerbi saria, Italian, 2005

Hauek dira Călbărescuren obra nagusietako batzuk: Nostalgia, Levantul, Travesti, Orbitor vol. I, II eta III, Solenoid.

### **Harkaitz Cano**

(Lasarte, 1975). Donostian bizi da eta bertan burutu zituen zuzenbide ikasketak, baina idaztea izan du beti ogibide.

Beti oporretan (2015) ipuin bilduma eta Twist (2011) nobela dira fikziozko bere azken bi lanak. Ia jenero guztiak landu ditu, horren lekuko, Belarraren ahoa (2005) ukronia, Txalorik ez, arren (2014) saiakera laburra, Norbait dabil sute-eskai-leran (2001) poema bilduma edo Piano gainean gosaltzen (2000) kronika liburua.

Hanif kureishi eta allen Ginsberg euskaratzeaz gain, bera arduratu izan da eskuarki bere lanetako asko autoitzultzeaz (“etengabea da berridazketaren tenta-zioa”). Haur literatura ere idazten du tarteka. Diziplina ezberdinen arteko nahas- ketarako bere joeraren erakusle dira, bestalde, hainbat artista plastiko, musikari eta dantzariarekin elkarlanean burututako egitasmoak.

Hiru aldiz irabazi du Euskadi Saria eta birritan Espainiako kritikarena. Twist nobelarekin, Beterriko Liburua aipamena ere erdietsi zuen. nederlanderaz, gale- goz, grezieraz, ingelesez, gaztelaniaz, errusieraz, alemanez eta italieraz irakur dai- tezke bere liburuak.

### **Dubravka Ugrešić**



1949an jaio zen, Kutina-n (Kroazia, garaian Jugoslavia). Literatura Konparatua, eta Errusiar Hizkuntza eta Literatura ikasi zuen Zagrebeko Unibertsitatean, aldi berean ikasketak eta idazkuntza uztartzen zituela.

Hasierako saialdi postmodernistetatik idazlan malenkoniatsuetara, bai fik- zioan bai saiakeran, bere aberri jugoslaviarraren desintegrazioaz eta Berlingo harresiaren erorketaz, azken aldiko literatur lan kultu eta herrikoietaraino, Ugrešić en lanek ironia, eztabaida eta samurtasun nahasketa bitxia erakusten dute.

1991n, Jugoslavia ohian gerra piztu zenean, Ugrešić ek jarrera garbia hartu zuen gerraren aurka, eta oso kritikoa nazionalismo atzerakoi kroaziar eta serbia- rrarekiko, bai eta gerraren ergelkeria eta kriminaltasunarekiko (ikus haren Gezurraren kultura liburua); laster bihurtu zen hedabideen, politikarien eta idazle kideen jomuga. Luzaroko ostrazismo publikoa eta hedabideen jazarpen iraunkorra jasan ondoren, 1993an kroaziatik alde egin zuen.

Deserrian eman duen denboran, haren lanak hogeitik gora hizkuntzataraz itzuli dituzte. Irakaskuntzan aritu da Estatu Batuetako eta Europako hainbat uni- bertsitatetan, Harvard, UCLA, Columbia eta Berlingo Unibertsitate Librea barne. Literatur sari garrantzitsuak jaso ditu: Austriako Europar Literatura saria, 1998an; Nzioarteko ManBooker saria, 2009an; Jean Améry saiakera saria, bere saio-lan guztiengatik, 2012an; Vilenica saria eta Nazioarteko Neustadt saria, biak 2016an. Gaur egun Amsterdamen bizi da.

### **Eider Rodriguez**

1977an jaio zen Errenteria-Oregetan eta Hendaian bizi da. Publizitate eta Zinema ikasketak egin ditu. Editore eta gidoilari lanetan jardundakoa, egun irakaslea da EHU. Hiru ipuin-liburu kaleratu ditu: Eta handik gutxira gaur (Y poco después ahora), Haragia (Carne) eta Katu jendea (Un montón de gatos); Irene Nemirovskyn Le bal (Dantzaldia) nouvelle-aren itzultzaile ere bada. Bere azken lana Itsasoa da bide bakarra. Joseba Sarrionandia irakurriz (2014) saiakera da.

### **Belén Gopegui**

(Madril, 1963). La escala de los mapas (1993), Tocarnos la cara (1995), La conquista del aire (1998), Lo real (2001), El lado frío de la almohada (2004), El Padre de Blancanieves (2007) eta Deseo de ser punk (2009) eleberriak argitaratu ditu Anagrama argitaletxean, eta Acceso no autorizado (2011) eta El comité de la noche (2014) Penguin Random House-n. SM argitaletxearekin El balonazo (2008) eta El día que mamá perdió la paciencia (2009) plazaratu ditu, besteak beste. Foro Complutense argitaletxean Un pistoletazo en medio de un concierto (2009) saiakera laburra argitaratu zuen, eta Txalapartak plazaratu zuen euskaraz –Tiroa kontzertuaren erdian (2011)–, eta UDP argitaletxearen eskutik kaleratu zuen bere artikuluen bilduma bat, Rompiendo algo (2014). Bere azken liburua umeentzako ipuin bat izan da, Mi misión era acercarme a Miranda (2015), Libros en Acción etxeak argitaratuta. Noizean behin, artikulua idazten ditu zenbait hedabidetan.

### **Arantxa Urretabizkaia Bejarano**

(Donostia 1947) Lanbidez kazetaria, era guztietako hedabidetan lan egindakoa. Gaur egun Euskal Telebistan, Diario Vasco, Radio Euskadin eta El Correo egunkarian dihardu.

Idazle gisa, itzulpengintza eta poesiaren esparruan argitaratu zituen lehen lanak, baina kontakizungintzaren alorrekoak dira lanik ezagunenak. Besteak beste, Zergatik Panpox (1979), Koaderno Gorria (1998), 3 Mariak (2010), Zuri-beltzeko argazkiak (2014). Guztiak gatzeleraz ere argitaratuak eta batzuk beste hainbat hizkuntzetara.



### **Menna Elfyn**

Poeta galestarra da. Galesez idazten du eta eta Galesko poeten artean beste hizkuntzetara gehien itzuli duten autoreetako bat da. Besteak beste, honako lan hauek idatzi ditu: Aderyn Bach Mewn Llaw (1990), Detholiad o Gerddi / Poema Aukera 1978-1994, Cell Angel (1996), Eucaliptus (1999), Perfect Blemish (2007). Orain arteko azken poema bildumak izena du Murmur (2012). 2016an, Eluned Phillips poetaren biografia argitaratu du (Optimist Absoliwt). 2017an argitaratuko da bere hurrengo poema bilduma: Bondo. Horrez gain, antzezlanak ere idatzi ditu eta zutabeak ere bai Galesko egunkari batean. Telebistarako eta irratirako ere idatzi izan du. Unibertsitatean ematen ditu idazkuntzako eskolak. 2002an, “Poet Laureate for the Children of Wales” saria eman zioten. Maiatz argitaletxeak aurki kaleratuko du Murmurioa liburua, Menna Elfynen lehen itzulpena euskaraz

### **Laura Mintegi Lakarra**

Lizarra (Nafarroa, 1955). Bizkaian bizi da. Historian lizentziatua eta Psikologian doktoratua, UPV-EHuko irakaslea da Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailean 1981tik aurrera. Euskal PEN-Basque PENeko bersortzailea eta lehendakaria izan da (2004-2012) eta zuzendaritza taldekoa da egun. Eusko Legebiltzarrean bozeramaile jardun du (2012-2014) 2012ko hauteskundeetan lehendakari izan ostean. Narrazio laburrak idatzi ditu, bost novela (Bai... baina ez, Legez kanpo, Nerea eta biok, Sisifo maite minez eta Ecce homo) eta saiakera liburuak. Nobela ba- tzuk argitara eman dira beste hizkuntza batzuetan, hala nola, ingelesa, gaztelania, alemanera eta nederlandera. Ohiko kolaboratzailea da komunikabideetan, ahoz-koetan zein idatzizkoetan.


### **Birgit Vanderbeke**

(Dahme, AED, 1956). Frankfurt am Main-en igaro zuen haurtzaroa eta nerabezaroa, familia 1961ean Alemaniako Errepublikara Federalera bizitzera joan ondoren. Lehenbizi, Zuzenbidea ikasi zuen; gero, Filologia germanikoa eta errromanikoa. 1990ean, Ingeborg Bachman literatur sari prestigioskoa jaso zuen, bere lehenengo eleberrirengatik, Das Muschelessen (“Muskuiluak afaltzeko”, Pasazaite, 2012). Eleberririk honek eta hurrengoak, Alberta hat einen Liebhaber (“Albertak maitalea dauka”), arrakasta handia izan dute, eta autorea bihurtu dute askorentzat aleman hizkuntzako idazle garrantzizuenetakoa bat. Bere idazlan gehienetan burges txikien familiak deskribatzen ditu ironiaz eta umorez. Familia instituzioaren barruko tirania eta despotismoa behin eta berriz agertzen den gaia da. 1993tik aurrera, Frantziako hegoaldean bizi da.

### **Angel Erro**

Angel Erro (Burlata, Nafarroa, 1978), idazlea da, Zuzenbidean eta Euskal Filologian lizentziaduna; Eta harkadian ni (Elkarlanean, 2002) eta Gorputzeko Humoreak (Alberdania, 2005) poema liburuen egilea; haren obra zenbait aldizkari, liburu kolektibo eta antologiatan ere jasoa izan da. Hainbat libururen itzultzailea, euskarara zein gaztelaniara, haien artean Emily Dickinsonen antologia bat, Rikardo Arregi Diaz de Herediaren Bitan esan beharra, Grégoire Bouillierren Rapport sur moi, Aingeru Epaltzaren Erresuma eta fedea eleberrien trilogia edo –oraindik agertu gabe– H. D. Thorearen Walden. 2006tik





idatzizko prentsan eta irratian kolaborazioak egin izan ditu; eguneroko zutabe bat idazten du Berria egunkarian. Irakurle klub bat zuzentzen du Iruñean.

### **Patrik Ourednik**

Patrik (Patrick) Ourednik (Praga, 1957). Gaztaroa 70eko hamarkadako Txekoslovakian eman zuen, “normalkuntzaren” garai bete-betean, “Pragako udaberriaren” itxaropenei amaiera emango zien garaian. Presoak askatzeko eskaera baten sinatzaile eta samizdats-en [errejimenak debekatutako literaturaren] editore, unibertsitate ikasketetatik kanporatu zuten, “desadostasun ideologikoagatik”. 1984an, Frantziara deserriratu zen, eta han bizi da harrezkero.

Hamabost bat libururen egile, txekierara itzuli ditu Rabelais, Jarry, Queneau, Beckett, Michaux Simon eta Vian. 2001ean, munduaren itzulia egingo zuen liburu bat argitaratu zuen: Europearra. XX. mendearen historia labur bat. Patrik Ouredniken lan guztiak –hiztegi “ezohikoak”, saiakerak, eleberriak, poesia, pasticheak– arreta berezi batek markatzen ditu: jasotako ideia, aurreiritzi eta estereotipoak, hizkuntzaren bitartez aztertzen ditu, haren ustez hizkuntzak “garai bateko egia” adierazten baitu beti. «Ni neu, printzipio desberdin samar bat aplikatzen saiatzen naiz, premisa honetatik abiatuta: egin daitekeen gauza da “garai bateko egia”-ren sinonimotzat hartzea garai horretako hizkuntza. Bestela esanda, hizkuntzazko ohitura, estereotipo eta topiko zenbait hartzea, beren artean joka dezaten, elkarri aurre eginez, kontakizun tradizional bateko pertsonaiek egingo luketen modu bertsuan.»